

Noaia!!!

www.noaia.com



Soto del Real espetxean da
Agurtzane Solaberrieta



Zikloiak
bere arrastoa utzi zuen

Zer erreko litzateke erraustegian?

ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASEPPIA HERRIA
BIZIRIK

Papera eta kartoia	% 31,73
imprimatutako papera egunkariak aldizkari eta liburuxkak Kartoizko ontziak	%24,78
paper zikinak/pixoihal/konpresak	%6,95

Guzti-guztia
birziklatu
edo
berrerabiltzeko
gaia!

*Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.

Osasun-tekniko batzordea



Euskal Herriak behar duen
**ALDAKETA
DEMOKRAZIA
3.000.000**

472

**SINADURA
LORTU
DITUGU**

D3M
aurrera begira

MILA ESKER!

www.demokrazia3m.com

Albiste iruditan !!

“Santa Ageda bezpera degu...”

Otsailaren 4arekin batera iritsiko da Santa Ageda bezperako koplak berritzeko garaia. Kaxkoan, 19:30ean aterako dira frontoi atzetik Bota Punttuba taldeko kideak, bertsolari eta trikitilarien laguntzaz. Deialdia irekia dela gogorarazi nahi dute.

Azken urteotan, bada Zubietan kantuan ateratzen den herritar koadrila. Lehengo astean hasi ziren Santa Ageda bezperako koplak entseatzen. Ostiral honetan, hilak 30, entsegu berri bat egingo dute Zubietako frontoi ondoko lokaletan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Argazkian, zubietarrak kantuan.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

PALESTINAREKIN BAT _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

FINANTZA MUNDUA ERE, EUSKARAZ _____ 10. OR.

ZIKLOIAREN ONDORIOAK _____ 12. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

URDAINTZI S.L.

erakuntza



Otar-Goxo
Elkargutak

Zubiaurrena, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

663 08 76 71 • 943 24 34 65

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. 943 362 725



MAIALEN UNANUE

Nola ba?

Egia esango dut: nik azterketa egin nahi nuen. Irakaslea atzeratzen ari zela eta, batzuek “gainditze orokorra” eskatzeko eskubidea genuela uste zuten, nonbait “entzuna” zutela. 35 minutu izan ziren. Niri berdin zidan: ez nuen asteburua jai eskatu bostekoarekin geratzeko.

Tentsioa zegoela nabaria zen airean: azken errepassoa ematen ari ziren ikasleak, mirari baten zain zeudenak daturen bat mahaian idazten, batzuk irakaslea etortzeko gogo biziz... Eta utopikoenak telefono deiak egiten: “orain arte kazetaritza ikasi dutenen inbidia izango gara!”. Lau urte irauten dituen ibilbidearen frogarik zailena omen zen hura.

Tarte amaigabe hura amaitu zenean, eztabaida luzea hasi zen, klasera joan ez ziren pertsona asko irakaslearekin aurrez aurre. Isilik zeudenen artean ni, eta horretaz bai, damu naiz. Ikasleen aldarriek irakaslea haserrarazi zuten eta aurretik adostutako hitzarmena hautsi zuten honek, azterketa egiteko prest geundenon itxaropenak kolokan jarritz (argipenak ematearren: bagenekien azterketa eredia zein izango zen eta baita zer gal-

detuko zuen ere gutxi-gorabehera).

Ez dut inoren alde posizionatzeko asmorik. “Neurekoi” dei nazatela, baina nik adostutako azterketa egin nahi nuen: hobeto edo okerrago egin nezakeen, suspendi nezakeen, baina egindako lanaren emaitza ikusi nahi nuen. Batek baino gehiagok pentsatuko du ergel samarra dela nire pentsaera, baina zer? Egindako lanak merezi izan ote zuen frogatu nahi nuen, besterik ez.

Irakasleari azterketa hutsik itzuli eta dekanotzara joan ziren ikasle haiek egiaztatu zuten mitoa faltsua zela, behin betiko eroriz: “gainditze orokorra” ez da existitzen, ez EHUn behintzat, dekanotzaren arabera.

Nola defendatu hainbeste ziur existitzen ote den ez dakizun zerbait? Ez dut ukatuko, ni utopikoegia naiz agian, zuzenean tuntun eta inuzenteegia naizela ez esatearren. Baina badira mito batzuk, film amerikartan soilik gertatzen direnak, eta inoiz ez errealitatean. Nork pentsa zezakeen “gainditze orokorra” existitzen zela? Aspaldi ikasiak behar genuen: bizitza honetan ezer ez da musutruk.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika!

San Sebastian eguna, jai?

Usurbil ez da Donostiako auzoa. Hau diot, ez dudalako onartzen urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean Usurbilgo haurrek jai eduki izana. Donostiako jaietan Usurbilen jai?

Haurrek danborrada egitearena uler dezaket nolabait, hain zuzen gertakari historikoari erantzuten baitio eta horrek, hirian ez ezik probintzian eragin zuelako.

Nik dakidala Usurbil

Buruntzaldean dago, nahiz eta Diario Vasok Urola-Kostan kokatzen gaituen. Kuriosoa ere, Buruntzaldeako herrien artean dagoen harremana. Andoainen jaioa naiz eta han urte asko eman ditudala, Usurbilekin dagoen harremana murrizta dela iruditzen zait (besteak beste, Buruntzaldeako autobusa non ote?). Horrela, eskualdeaz beste eztabaida izan genezake, baita ere Aginaga eta Zubietarekin dagoenaz.

Halere, gai hauetan ez naiz aditua eta iruditzen zaidanaz baino ez naiz mintzo.

Argi dudana zera da, Donostiakoa ez dela Usurbilgo jai. Ez da bidezkoa beren jai ospatzea, nahiz eta gure probintziako hiriburua izan. Are gehiago, Donostiako Udaletik nola portatzen diren ikusita, adibidez, hondakinak eta erraustegiagatik.

Alex Tello

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: otsailak 6. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 2.

Sahararako bilketa, azken egunetan

Krisialdi ekonomikoak eta epea iaz baino apur bat laburragoa dela aintzakotzat hartuta, ekimeneko eragileen esanetan, bilketa aurreikusi bezala doa. Dagoeneko 400 kilo gai jaso dira Sahara bidaltzeko. Baina oraindik kanpainan parte hartzeko aukera dago, urtarrilaren 31 arte.

Sahararen aldeko V. Elkartasun Karabana otsailean irtengo da, Euskal Herrian bildutako gaiekin.

LUISMA LOPEZ

“Krisiaren ondorioz, bagenekien aurten gutxiago bilduko genuela”

Usurbilen jasotakoa ere bidaliko da, nahiz itxura guztien arabera, iaz baino gutxiago izango den. Batez ere denon ahotan dabilen gaia, krisialdiarena dela eta.

Halere, eragileek diotenez, aurtengo kanpaina esperotako emaitza izaten ari da. “Espero bezala doa. Krisialdi

ekonomikoak eta bilketarako bi aste gutxi izanda kontuan hartuta bagenekien gutxiago jasoko zela”, aipatu du Luisma Lopezek. Iaz bi tona, bi mila kilo gai bildu ziren. Aurtengo aurreikuspena 600-700 kilo jasotzea litzateke. Eta dagoeneko Lopezek adierazi bezala, “laurehun bat jaso dira”.

Urtarrilak 31, azken eguna

Kanpaina ordea ez da oraindik amaitu eta eragileek parte hartzera deitzen dituzte herritarrak. “Azken aste honetan, herritarrak animatu nahi genituzke. Laguntza guztia gutxi da. Norbere ekarpena aldiz asko”, dio Lopezek. Arroza, lekak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak bilduko dira Udarregi ikastolan eta Aliprox eta Dia dendentan. Azken eguna, urtarrilak 31.



700 KILO BILDU NAHI DIRA USURBILBIL. ORAINGOZ, ERDIA BAINO GEHIAGO JASO DA.

Udarregi ikastolan, Aliprox eta Dia saltokietan

BILTZEN ARI DIRENA: arroza, lekak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea, konpresak.

NON ARI DIRA BILTZEN: Udarregi ikastolan, Aliprox eta Dia saltokietan.

Gazte etorkinei buruzko erakusketa Udarregi ikastolan

Ume atzerritar laguntzarik gabeak, lehenik eta behin, umeak dira. Legeak ez du zalantzarako zirrikiturik ere uzten: bertakoak edo kanpokoak izan daitezke, baina beti adingabeak dira. Eta adingabea-ri zaintza zor zaio; gure ardura ere bada. Sentsibilizazio kanpaina bat iragarri dute SOS Arrazakeriak eta Usurbilgo Elkartasun Taldeak. Kanpaina honen eskutik dator Udarregi ikastolan laster zabalduko den erakusketa, “Gureak ere badira gazte horiek” izenekoa.

“Gureak ere badira gazte horiek” erakusketan, argazkiak, testigantzak

eta berriak jasotzen dira, Funtsean, oraingo gizartea multikulturala dela ondorioztatu daiteke, eta auzokide berri asko ditugula inguruan. Erakusketa Usurbilgo Elkartasun Taldeak antolatu du; otsailaren 2an zabalduko da eta 16ra bitartean ikusgai izango da Udarregi ikastolan.

Arratsaldez ikusgai


“Gureak ere badira gazte horiek”

Noiz: otsailaren 2tik 16ra.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 17:00etatik 18:30etara, doan.

Non: Udarregi Ikastolan.

Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Usurbilgo Elkartasun Taldea.



ERAKUSKETA OTSAILAREN 2AN ZABALDUKO DUTE.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

San Esteban Txiki dela eta...



Urtarrila amaitzar den honetan, urte berrian dagoeneko denetik izan dugula esan genezake: hego haizearekin hasi genuen urtea, elurra izan genuen laster, eta nola ez, gure inguru hauetan hain normala bihurtu zaigun ia eguneroko euri hau, euri aspergarria nire ustetan.

Data hauetan ez da jende gehiegi ibiltzen gure auzo honetan. Baina abenduaren 26an izan genuen zer ospatua. Orduan bai, orduan bildu ginen jende dezente gure ermita inguru honetan. San Esteban Txiki eguna izan zen eta bertaratu zen jendeak meza entzun ondoren, salda, ardoa eta txistorra jateko aukera izan zuen. Egia esan, eguraldiak ez gintuen gehiegi lagundu,



hotza eta euria izan baitziren nagusi eta hori zela eta, bertako lokaleko atea ireki eta jendea bertara sartzea erabaki genuen. Gustura ikusten zen jendea bertan: batzuk urtean behin bakarrik bertaratzen zaizkigu auzora eta egun hau izaten dute auzotarrekin kontutan aritzeko.

Egia esan, Jai Batzordeak poza hartzen du jendea San Esteban Txiki egunarekin gogoratzen dela ikustean. Nahiz eta San Esteban "Handia" abuztuan ospatzen den, honelako egunei ere eutsi egin behar zaie eta ez dira ohitura zaharrek galdu behar.

KALEBERRI

IRATI PORTU

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Alertan



Alerta egoeran omen gaude. Zikloiak Aeta olatuak, olatuak eta zikloiak.

Usurbildarrak ez gara haizete honen eraginaz libratu, ez horixe. Argia joanda egon gara etxe askotan, zuhaixkaren bat edo beste bota du haizeak... eta nor ez da ibili kalean behera haizearekin borrokan, pausu bat aurrera eta hiru atzera emanez? Hala ere, ezin gara kexatu, zikloi famatu honek ez du gure inguruko beste batzuk adina jipoitu.

Alerta egoeran omen gaude.

Eta bai, badugu zertaz kexatu eta amorratuta egoteko arrazoirik. Joan den ostiralean, goizaldean, gure herritar bat eraman zuten atxilotuta. Agurtzane eta beste zazpi lagunak atzetik ba omen zeramazkiten bederatzi hilabete. Mesedez, zein delitugatik? Inpotentzia eta botagurea ematen didate hauteskude aurreko kanpaina honetan Agurtzane eta besteak atxilotzeko "arrazoi" moduan eman dituzten zentzugabeko txorakeria horiek guztiek.

Alerta egoeran omen gaude. Telebista piztu eta hauteskundeak eta haizeeeee ugari, gehiegi, besterik ez.

Horixe pentsatu nuen...

Azken egun hauetan haize bolada izugarririk hauek direla eta etxean geratzeko aholkatzen ziguten komunikabide ezberdinetatik. Derrigorrezkoa bazen soilik irteteko kalera, eta bertan kontu haundiz ibiltzeko. Larunbateko kirol jarduera guztiak, eguraldia arriskutsutzat jo zelako, bertan behera gelditu ziren. Gure herrian, Gipuzkoako beste herrietan bezala ez zen futbol partidarik egon. Badaezpada hobe ez arriskatzea. "Baina... hainbesterako ote da? Gehiegizkoa iruditzen zait" Horixe pentsatu nuen...



Alarma egoerari kasu eginez, etxean sartuta, goiz osoa argindarririk gabe igaro genuen, haizeak eragindako soinuen atentzioa deituzan noizbehinka lehiotik begiratu. Argindarra bueltatu zenean, telebista piztu eta gainontzeko lekuetan zer gertatzen ari ote zen begira: itsasoa haserre, olatu ikaragarriak, teilatuak eta zuhaitzak airean... Eta berriz Atxegalderi begirada bota eta hara! Mahaspildegira jaisteko eskilara alboan urteak zeramatzen zuhaitza lurtean ikusi dut. Bidea oztopatzen. Ufff... inor ez du harrapatu. "Ba bai, hainbesterainokoa zen...Eskerrak etxean geratu naizen" ... Horixe pentsatu nuen.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Goizeko bostak



Goizeko bostak. Begiak zabaldu eta haizearen zarata bortitza paretaren bestaldean. Horrelakoetan egin ohi dudana bezala, maindireen artean ezkutatu nintzen, seguruago sentituko banintz bezala. Baina ezer ez, ezinezkoa zen ordurako lo hartzea. Ohe ondoko lanparatxoak piztera joan eta hara! Argirik ez. Horrelako fenomeno meteorologikoei beti eman izan didate halako errespetu bat, nahiz eta badakidan bizi garen lekuan bizita gauza handirik ezin dakigukela gerta.

Hala ere, urduri jarri ninduen argi ezak, eta itsuan, ohearen bestaldean ditudan kandelatxoak bilatzen hasi nintzen. Piztu, eta artean kanpoko bistak ikusi ezin nituenez (pertsianak ezin baitziren ireki, klaro, badaezpada ere) beheko pisura jaitsi nintzen, bertako leihoetatik zerbait ikusteko asmoz.

Farolak itzalirik zeuden arren, ikustekoa zen panorama: zuhaitzak handik eta hemendik, bazirudien aitak landatutako frutarbol gazteek ez zutela gau osoan iraungo...kotxe ausarten bat errepidetik barrena eta gauza gutxi gehiago.

AGINAGA

ANE MANZISIDOR

II. Gau Beltza



Asteburu haizetsua izan da igaro den hau, Aginaga aldean haize gogor honek, zenbait zuhaitz irauli zituen eta hainbat orduz argindarrrik gabe egonarazi gintuen, baina badi-rudi amaitu dela arriskua.

Gaurkoan, kontzertu baten inguruko informazioarekin natorkizue. Iaz ospatu genuen I. Gau Beltza lehen aldiz eliza zaharrean. Orduan Anestesia, Lurpe eta Metralleta taldeak izan genituen ikus eta entzungai. Lortutako emaitzekin gustura geratu ginenez, aurten ere hasiak gara antolaketa lanetan.

Aurten II. Gau Beltza martxoaren 14an ospatuko dugu, gaueko 23:00etatik aurrera eta hiru talde izango ditugu ikusgai; Sortuz, Disturbio eta Kaotiko. Ikuskizun aparta eskaintzera etorriko direla esan digute. Sarrerak hainbat tokitan izango dira salgai, alde zurretatik 10 eurotan erosi ahal izango dira eta bestela egunean 13eurotan, sarrerak mugatuak izango direlarik! Hemendik, guztiok gonbidatu nahi zaituztet kontzertu honetara, ez da girorik faltako eta!



Ez nintzen gau hartan ohera bueltatu. Atea ireki, kanpoan bizi den katutxoari sartzen utzi, eta goxo goxo, argien diskotekan murgildurik, telebistaren joan etorriei erreparatuz eta tarteka protagonismoa hartzen zuten kandelan inguruan pasa zitzaigun goizalde.

Eta panorama honen erdian eguna esnatu zenean (egun madarikatua, portzierto, ikasketa eguna bainuen eta berebiziko logurea) iseka egin zidan gainera. Ez omen zen uste bezain handia izan ditxosozko zikloia, eta eskerrak!

Dena bere lekuan zegoen, frutarbolak beti bezain tente, erreka normalean baino urtsuago baina kezkatzeko motiburik gabe, kotxeak betiko martxan alde batetik bestera...kontenedorea (laster bertan egongo ez dena) mugitu ere ez zen egin!

Eta orduan pentsatzen jarri nintzen hirugarren munduko herrixka batean hemen pasatuko zikloia pasako balitz, hildako ugari egongo zirela seguraski, etxeak eroriak izango zirela eta milaka eta milaka zauritu.

Eta ni, haize bolada bortitz batek lo egiten utzi ez didalako kexatzen.

Ze injustua den bizitza ezta?

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Gero eta zerbitzu gehiago

Ez, behingoagatik ez naiz ari Donostiako agintariek inposatuko dizkiguten "zerbitzuez".

Zubietan aspalditik hainbat zerbitzu (gutxitxo aukeran) izan ditugu; hala nola, Herri Batzarra, eliza-zerbitzuak, eskola txikia, elkarte gastronomikoa, pilota elkarte, jai batzordea, hainbat taberna eta jatetxe... Lasarte-Oria aldera ere hor daukagu hipodromoa, Merka Bugati eta gasolindegia...

Azkenaldian, ordea, herrian ugaritzen ari dira zerbitzuak, batetik, frontoi atzeko lokala erabiltzen hasi delako eta, bestetik, Zubietan Lantzen elkarte eta zubietarrak ekintzak eta elkarguneak antolatzen hasi direlako. Horrela, herrian baditugu musika-eskola, yoga taldea (asteazkenean aritzen dira 8-10 lagun), txirrindulari taldea (igande honetan irteera, argazki ofiziala eta bazkaria), ume eta helduentzako zine-emanaldiak (larunbatean guztira 50 bat lagun bildu ziren)...

Horien guztien berri izan nahi baduzu edo beste ekin-tzaren bat antolatu nahi baduzu, jo helbide honetara: www.blogak.com/zubietalantzen



Kartzelan sartu dute Agurtzane Solaberrieta

Auzitegi Nazionalaren aginduz, espetxera bidali zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan atxilotutako denak, Batasunaren zuzendaritza berriro osatzea eta Demokrazia 3 Milioi (D3M) eta Askatasuna alderdien ilegalizazioari muzin egiten saiatzeari egotzita. Tartean, Agurtzane Solaberrieta. Soto del Real espetxean da pasa den igandetik.

Urtarrilaren 23an eraman zuten atxiloturik Agurtzane Solaberrieta. Espetxeratze-agindua jakinarazi zen arte, egunero elkarretaratzeak egin ziren herrian. Elkartasun hori Madrilera ere iritsi zen.

Atxilotuei babesa eta elkartasuna adieraztera 27 usurbildar joan ziren, igande goizaldean Madrilera abiatu zen autobusean. Aurreikusitakoa baino bidaia luzeagoa izan zuten. Hasiera batean, zortzi atxilotuak Auzitegi Nazionalera eguerdi partean eramango zituztela uste izan arren, deklarazio hartzea ordu askoz atzeratu zen.

Oztopo ugari Madrilan

Epailak autoa kaleratu zuenerako goizaldeko bostak jo zituzten. Bitarte horretan guztian, egun eta gau osoan, herritarrak bertan egon ziren. Auzitegi



ATXILOTU ZUTEN EGUNEAN ELKARRETARATZE JENDETSUA EGIN ZEN.

Nazionalera hurbiltzeko oztopo ugari jarri zizkieten gainera.

Atxilotuak, goizaldean, Soto del Realeko kartzelara eraman zituzten. Espetxeratze-agindua kaleratu ondoren, hemendik joandako herritarrek etxerako bidea hartu zuten.

NOAUA!ko kide

Agurtzane Solaberrieta NOAUA!ko kudeatzailea eta publizitate-arduraduna izan zen 2003ko udazkena bitartean. Berrian hasi zen gero kazetari lanean eta, ondoren, egunkaria utzi eta EAE-ANVko prentsa arduradun izendatu zuten.

Analisia

Ez dakit nola iritsi garen honaino. Baina egunotan ikusi dugu. Korrante politiko jakin baten prentsa-arduradun izatea, kartzelarekin ordaintzen da hemen. Horrela laburbildu daiteke Agurtzane Solaberrietaren kasua. Autoari erreparatuz, hori baita leporatzen zaion delitua.

Ados. Erpin asko ditu gatazka honek. Badirela injustizia eta urraketa gehiago ere. Erpin honekin lotuta, urruti joan gabe, EITBren aurkako eraso, esate baterako. Ados nago. Injustizia eta urraketa gehiago ere badago. Baina hemen eta orain, Agurtzane kartzelan da prentsa-arduradun lanetan aritu delako. Eta hau ez dut nik esaten, espetxeratze-agindua jasotzen duen autoak dio.

Zikloiazen asteak bestelako zirkloirik ekarri zuen gure artera. Eta jada asko dira kateatu direnak; gainera daramagun zama gero eta astunagoa da.

Ez dakit nola iritsi garen hona. Ezta nola aterako garen ere. Izan ere, prentsa-arduradun izatea, kartzelarekin ordaintzen bada hemen...

Imanol Ubeda

Euskaltegiko ordenagailuen disko gogorak eraman zituen poliziak

Ostiralean, goizeko 7:30ak aldera, Udalak Kale Nagusian dituen lokalak miatzen hasi zen poliziak. Bertan da, besteak beste, AEK euskaltegiaren egoitza. AEK-ko bulegoetan sartu ziren eta ordenagailuetako disko gogorak eraman zituzten. AEK-tik esan digutenez, gutxienez 6 hilabete pasako dira disko gogorak berreskuratu arte. Bien bitartean, oztopoak oztopo, klaseen dinamika berdin mantendu dute.



URTARRILAREN 23AN SARTU ZEN POLIZIA AEK-REN EGOITZAN.

UDARREGI IKASTOLA



- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenaz arduratua.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren andatz gisa.
- Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio-Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat: Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertsogintza, dantza.

HAUR ESKOLA: 0 - 3 (07/08/09 urtean jaio eta jaioko diren haurrak).

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16

Matrikulatzeko epea
Otsailaren 2tik 13ra biak barne

943 374 061

Haur eskola

Kalezar auzoa 15. USURBIL

943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com



MIKEL IRIZAR, KUTXAREN KULTURA, GIZA TALDEAK ETA LANKIDETZAK SAILA

“Euskara txertatu egin behar da enpresen jardunean”

Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalek Kutxarekin euskararen erabilera zabaltzeko hitzarmena sinatu eta 15 hilabetera “bide onean” da, lan asko oso aurreratuak daude, Mikel Irizar Kutxako hizkuntza politikaren arduradunaren ustez. “Neurketaren daturik ez dugu momentuz, nahi baino polikiago doa baina sendo doala esan dezakegu”. Irizarren iritziz, kontua ez da hitzarmena sinatu eta argazki polit bat egitea, argazkiaren ondorengo lana da garrantzitsua. “Egoera batetik bestera joan nahi baldin badugu, jendea motibatuzeko, egokituzeko, lan taldeak birmoldatzeko erabakiak hartu behar dira argazkian gero eta guapagoa ateratzeko”.

Bi plano argi daude hitzarmenean, Udalekin eta bezeroekin duzuen harremana. Zein da errazagoa euskalduntzeko?

Bi aldetan epe laburrean konpromisoak maila oso altuan betetzeko moduan egon gaitzela uste dut. Konpromiso honetan sartu ginenean konturatu ginen Kutxan betetze posibletik nahiko hurbil ginela. Oraindik Gipuzkoako bulegoren batean egon daiteke norbait euskara ez dakiena, baina jada hondar batzuk dira eta epe labur batean, kariño guztiarekin esanda, desagertzearen den espeziea da. Bezeroari kalitatea eman behar bazaio bere hizkuntzan ematea izango da onena. Kutxan arlo honetan gauza asko egin dira baina oso esanguratsua da, lehenengo aldiz zuzendaritza batzordean onartutako hizkuntza plan bat daukagula eta honek baditu urrats batzuk. Bikain plan estrategikoan sartu gara, 2008tik zilar mailan gaude eta helburua jarri dugu 2011rako ia urrera iristen garen.

Buruntzaldean konkretuki, langileak lehen hitza emateko moduan al daude?

Bai, gehienetan bai, oraindik landa lanaren datu zehatzak ez ditugu jaso, laster izango ditugu, baina Buruntzaldean maila ona daukagula esan dezaket.



MIKEL IRIZARREN ESANETAN, KUTXAKO JARDUNEN ERDIA EDO GEHIAGO HIZKUNTZA ALDETIK NORMALIZATUA DAGO, ETA BESTE LAURDEN EDO ERRAZ XAMAR NORMALIZATZEKO MODUAN.

Elementu erantsi bat daukagu, Kutxaren strategiaren baitan da pertsonala gaztetzea. Horrek azkartu egingo du lana, ordezkatzea behar denean, hizkuntza eskakizunak jartzean... bereziki hitzarmena sinatuta daukaten tokietan. Kontuan izan 600 langile berri ditugula Gipuzkoan azken bospasei urtetan, gehienak bulegoetara joan direla eta denak dutela hizkuntz eskakizuna.

KUTXA

“Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuen Kutxak”

Helburu horretan zein da zailtasun handiena?

Zailtasun handiena jendearen ohitura aldatzea da. Langile gazte elebidun asko sartu zaigun boladan, ikasketak euskaraz egin dituztenen artean badago portzentai handi bat, euskaraz erreaktibo xamarra dena, hau da, behar duenean egiten duena baina berez lanetik aparte gaztelan aritzeko joera duena. Ez dira hiz-

kuntza aldetik pertsona orekatuak. Hor lan handia egin dezakegu: pertsona horiek lan hizkuntza neurri handi batean euskara izatea lortzean, automatikoki bere pertzepzioan, bere jardunean eta bere oreka mentalean eragina dauka. Zailtasun handiena hori da, baina ohitura aldaketan eragiten joango gara. Baliabide teknikoei dagokionez konektatu eta euskaraz jarduteko aukera erraztu egin dugu. Horrek ere eragina izango du. Beraz aurrean daukagun lana dinamizazio eta motibazio lana da.

Behin toki batzutan martxan jarrita asko erraztuko da beste eskualde batzuetara zabaltzea bera, ezta?

Buruntzaldea esperimentalak izan da. Hasieratik Iñaki Arruti (Lasarte-Oriako euskara teknikaria) eta Joxan Amondarain Foru Aldundikoarekin lan egin dugu. Buruntzaldean gainera euskara teknikariak oso lotuta daude euren artean eta asko erraztu digute lana. Deba Goienan ere antzeko egoera zegoen. Eudel bitartez hitzarmenaren zabalkundea egin genuenean interesa jaso genuen beste udal batzuetatik. Espero dut 2009an beste bizpahiru eskualdetan hitzarmena sinatzea eta 2009-2010 artean, Udalekin ditugun harremanen eta



bulegoetako erabileraren neurketa guztiak izatea.

Zer garrantzia ematen diozu hitzarmenari? zer nabarmenduko zenuke?

Nik uste garrantzi handia duela. Zerbitzu erakunde eta enpresatan bezeroa da estrategia guztien eragilea eta hitzarmen honek eragina dauka bezero indibidualean baina baita bezero kolektiboan. Kutzak urrats hau emanez gero, herritar euskaltzaleek zera jasotzen dute, Kutxa ari dela zerbait egiten ni asebetetzeko, nik nahi dudana zerbitzua nik nahi dudana hizkuntzan izateko.

MIKEL IRIZAR, KUTXA

“Kutzaren helburua da hizkuntzaren normalizazioan ahalik eta txanpa fuerteena egiteko”

Bezeroen ahotsa jasotzeko inkesta bat egiten du Kutzak; urtero 800 bat pertsonari galdeketa egiten zaie; 2007an lehen aldiz sartu genuen hizkuntza gaia galderatan eta oso datu interesgarriak ateratu dira. Laurden batek esaten du prest dagoela hipoteka euskaraz egiteko zertxobait gehiago ordaindu behar badu ere. Dinamika hau mantentzea eta bultzatzea oso garrantzitsua da.

Bezero kolektiboari dagokionez, gizarateak, honen ordezkariak eta administrazioak Kutxarengandik balio batzuk espero dituzte, etikoak, ingumeneoak eta balio linguistiko batzuk ere bai, hau da, gai izan behar du Kutzak dauzkaten espektatiba eta itzaropen horiekin sintonizatzeko eta ahal bada horiek gainditzeko. Hemen bete betean sartuko litzateke hitzarmena.

Prest al da Kutxa erronkari aurre egiteko?

Bai, momentu honetan Kutzaren helburua da hizkuntzaren normalizazioan ahalik eta txanpa fuerteena egiteko. Guk inork baino obligazio handiagoa dugu Gipuzkoan txertatuak egoteko, erantzun egin behar dugula sentitzen dugu eta ez bakarrik norbaitek atentzioa deituko digulako.

Barruko egoera aztertuta al daukazu? Hutsunerik aurkitu al duzue?

Orain prozesu horretan gaude. Bikain ziurtagiriak skaner nahiko konpletoa dauka. Erradiografia horrek argi utzi du

gauza askotan oso aurrera gaudela, eta gero beste batzuetan hutsuneak ditugula. Horiek batzuetan besteko batera igotzearekin bakarrik sekulako aurrerakada daukagu. Oso tresna erabilgarria da eta Bikain ardatz bezala hartuta hiru urterako planteatu dugu 2009 eta 2010 urtetako hizkuntza planaren ildoak moldatu 2011n urrezko ziurtagiria lortzeko, hau da, alorrez alor ikusi, eta hutsuneak daudden tokietan neurriak adostu alor horietako arduradunekin, beraiek inplikatu.

Hizkuntz politikaren ildo nagusiak zeintzuk dira?

Planteamendu nagusia da hizkuntza kudeatu behar dela beste aldagaiak bezala. Seguru asko hizkuntza aldetik historikoki egon den arazo bat izan da hizkuntzari egin zaiola toki eta tratamendu berezi bat. Ez da enpresa euskarara etorriko, euskara txertatu egin behar da enpresaren jardunean. Gure hizkuntza politika horretan oinarritzen da, enpresak zer parametroren baitan funtzionatzen duen eta bere lan ildoak zein helburren arabera definitzen dituen antzeman eta gu horretara hurbiltzen gara.

Oraingoz, enpresa munduan, hizkuntzen kudeaketa aurreratuena hizkuntz gutxituen normalizazio prozesuekin lotuta dago, baina munduan enpresak gero eta globalagoak diren heinean, inpresioa daukat, hizkuntzen kudeaketa hori enpresen eginkizun inportante bihurtuko dela. Txina edo Alemaniara eroatera joanez gero, ingelesez erosi daiteke, baina saltzera doan hobe du txinera edo alemana jakitea.

Gu garatzen ari garen estrategia eta biltzen ari garen jakinduria hori akaso esportagarria izango da. Oso aurrerakoiak izan daitezkeen prozesuak ari gara bideratzen.



BURUNTZALDEKO UDALEK ETA KUTXAK HITZARMENA SINATUA DUTE, EUSKARA ZABALTZEKO.

Lehen hitza euskaraz, Kutxan

Kutzak eta Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalek 2007ko urriaren 26an sinatu zuten hitzarmenari esker, erakundeen arteko lankidetzaren sendotzen eta sakontzen ari da euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuen Kutzak eta hitzarmenean esaten denez ahalik berezia egingo dute bulegoetako langileak lan mota guztietan euskaraz jarduteko gai izan daitezkeen.

Helburu honetara bideratzen ari dira, bereziki, etengabeko trebakuntza eta laguntzarako tresna informatikoak. Era berean, eskualdeko bulegoetan eskaintzen dituen zerbitzu guztietarako kontratatzen diren langile berriak, finko zein aldi baterakoak, jada elebidunak dira.

Informazio bidalketa

Bost urteko eperako sinatu zen hitzarmena eta bost urteak betetzen ditueneko, 2012ko urrirako, bezero euskaldunei helarazten dizkien idatzizko informazio, eragiketa eta gainerako guztiak euskaraz bakarrik helarazteko proposamena egingo diela sinatu du Kutzak. Gainerakoei idatzi elebidunak bidaliko dizkie, eta euskarak lehentasuna izango du horietan. Prozedura hau txertatu egingo da bezero berriak hartzeko protokoloan.

Udalen eta kutxaren hizkuntz politikaren helburuak batu egin dira hitzarmenari esker. Hitzarmenean gogorarazten denez, batetik Udala Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren esparruaren barruan, udal langileen eta herritarren artean euskararen erabilera gehitzeko asmoz ari da lanean, eta Kutzak dituen bulegoak ere herritarrek euskara erabiltzeko topagune egokiak dira.

Kalitatea emateko funtsezko

Kutzak bere aldetik, bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzea du helburu, kalitatearen osagai funtsezkoa delarik bezeroak harreman-hizkuntza aukeratu ahal izatea; abiapuntu horrekin, kutxaren ustez lagungarri da helburu hori lortzeko Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialen arteko desoreka gainditzeko.

Zikloiak kalte arinak eragin zituen

Pasa den asteburuan, zeresan handia eman zuen zikloiak. Baina gure inguruan behintzat, kalte arinak eragin zituen. Zuhaitz eroriek hainbat pasabide moztu zituzten. Teilak eta farolak ere eraman zituen haizeak aurretik eta horrek kalteak eragin zituen hainbat autotan. Aste honetan, ordea, uholdeak protagonista. Oriak eta Urumeak gainezka egin zuten eta asteartean arazoak izan ziren bide eta errepede ezberdinetan.

Urtarrilaren 24ko denboraleak kalte hauek eragin zituen:

Kaparotzen, Urkamendi bidea itxita egon zen, haizeak bi zuhaitz bota zituen.

Galtzaragainan, antena erortzeko arriskuan egon zen.

Atxegalden, hainbat zuhaitz bota zituen haizeak. Batek, aparkatuta zegoen kotxeari kalteak eragin zizkion.

Bordaberi kalean, zuhaitz handi bat erori zen eta balkoi batean kalteak egin zituen. Artzabalgo parkera ematen duen pasadizoan, sabaiatik xaflak erori ziren.

Ibarrolan, ukuilu zaharraren gaina eta paretak bota zituen denboraleak.

Barrenkalen, teila asko erori ziren. Teila horiek kalteak eragin zituzten hainbat kotxeetan.

Kontsejuzarra kalean, hormari itsatsita zegoen farola erori zen eta kotxe bati kalteak eragin zizkion.

Aginagako tailerreko lokaletan, kristalak puskatuak agertu ziren.

Santuenean, telefono-harien hainbat enbor edo poste kaltetuak izan ziren. Teilak ere altxa zituen haizeak Santuenean.



KAPAROTZEN, URKAMENDI BIDEA ITXITA EGON ZEN HAINBAT ORDUZ HAIZEAK BI ZUHAITZ BOTA ZITUELAKO. ARGAZKIAK: UDALTZAINGOA.



IBARROLAN, UKUILU ZAHARRAREN GAINA ETA PARETAK BOTA ZITUEN.

Oria eta Urumea ibaiak, gainezka

Azken egunotako euri jasa mardulek Abegi bistako ondorioak utzi zizkiguten. Oria ibai bere bidetik atera zen leku batean baino gehiagotan. Irudian, Zubieta inguruak.

Urumea ibaiak ere gainezka egin zuen eta horren ondorioz Usurbildik Hernanirako bidea itxita egon zen hainbat orduz.





ASKO IZAN ZIREN HAIZEAK ERAMAN ZITUEN ZUHAITZAK.



KONTSEJUZARRA KALEAN, FAROLA ERORI ETA KOTXE BATI KALTEAK ERAGIN ZIZKION.



TEILA UGARI MUGITU ZITUEN HAIZEAK. GALTZARAGAINAN, ANTENA ERORTZEKO ARRISKUAN.



ARTZABALEN, PASABIDEKO SABAIAKO XAFLAK ALTXA ZITUEN HAIZEAK.

Otsailaren 8an, Anbotora

Euskal Herriko lurralde guztiak zeharkatzeko asmoa dute aurtengoan, Andatza mendi taldekoek. Lehenengo geldialdia, Bizkaian; Anboto mendian.

Sei orduko iraupena izango du ibilbideak. Axpe herriko Arrazola auzoan finkatu da ibilbidearen hasiera eta baita helmuga ere, Anboto inguratu eta tartean, 1.331 metro garaieradun tontorrera igotzeko asmoa baitute.

Irteera, goizeko 7:30ean

Txangoa otsaileko bigarren igandean, hilaren 8an izango da. Joan etorria kotxez egingo da. Goizeko 7:30etan zehaztu da irteera ordua, Andatzako mendi taldearen egoitza parean.

Gainerako lurraldeetara joko dute Andatzakoek aurren, zeharkaldi, mendi eta bizikleta irteerak egiteko.



ANDATZA MENDI TALDEKOAK ANBOTO MENDIRA JOANEZ HASIKO DUTE URTEA.

Otsailaren 7an, kantu afaria

Gonbidatu gisa zuberotarrak dituen afaria antolatu du Nafartarrak kultur taldeak. Astebete barru ospatuko da, otsailaren 7an, inauguratu berria den Artzabalgo zahar egoitzan. Honakoa da Usurbila datorren zuberotar abeslari taldea: Laffite anaiak, Zedrik, Philippe eta Dominika Agergarai. Abeslari zerrenda luzatu liteke, haiekin afaltzera joanez gero beti ere.

Sarrerak eskuragarri

Dagoeneko txartelak eskuragarri daude zahar egoitza berrian edota Txiribogan. Prezioa, 25 euro. Larunbat iluntzeko kantu afaria, 21:00etan hasiko da.

“Olinpiadak”, Inauteri hauetarako gaia

Badatoz pixkanaka aurtengo inauteriak ere. Otsailaren 21ean ospatuko dira Usurbilen. Eguneroko mozorroak alboratu eta urtean behin soinean eramaten diren horiek eskuratzeko garaia da. Aurtengo gaia, aukeratua dago jada; “Olinpiadak”. Hasi entrenatzen.

NOAUA!k antolatuta, egun osoko festa izango da otsailaren 21ean larun-

batarekin. Goizean haurrentzat bereziki, baina baita gazte zein helduei ere gonbita luzatu nahi zaie, nahi duten moduan mozorrotu eta antolatuko diren saioetan parte har dezaten.

Txaranga doinuak eguerdian, eta harekin batera, kalejira arratsaldean. Eta gero, joko olinpiar zaletuentzat desfilea, BTK taldeak girotuta. Amaitzeko, afaria. Bertara joateko baldintza bakarra; mozorrotuta egotea. Laster jarriko dira afarirako txartelak salgai.



IAZKO INAUTERIETAN EDERKI ASKO PASA ZUTEN LAGUN HAUEK.

472 sinadura bildu ditu D3M ekimenak

Martxoaren 1eko hauteskundeetan izateko, Demokrazia 3 Milioi plataformak gutxienez 9.500 sinadura behar zituen Bizkaian, 5.700 Gipuzkoan eta 2.700 Araban.

Usurbilen, 472 sinadura bildu dira guztira.

Alokairu sozialeko etxebizitzak

Txaramunto kaleko etxebizitzetan izena emateko epea ostegun honetan zabalduko da. Otsailaren 20ra arte luzatuko da eskaerak aurkezteko epea. Izen emateko eskabide-orriak udaletxeko errejistroan eskura daitezke.

Udaltzain lanposturako lan deialdia

Usurbilgo udaleko udaltzain lanpostua hornitzeko deialdia.

Lanpostua: udaltzaina.

Jardunbidea: oposaketa-lehiaketa.

Ezaugarriak:

-Funtzionario izaera.

-3.go hizkuntza eskakizuna.

-B gida baimena derrigorrezkoa.

Oinarriak: Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2008ko abenduaren 17an argitaratuak.

Eskaerak aurkezteko epea: 2009ko otsailaren 12a, eguerdiko 14:00ak bitartean.

Lorazain laguntzaile izateko deialdia

Lanpostua: lorazain laguntzaile. Jardunbidea: oposaketa-lehiaketa.

Ezaugarriak:

-Funtzionario izaera.

-1.go hizkuntza eskakizuna.

-B gida baimena derrigorrezkoa.

Oinarriak: Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2008ko abenduaren 17an argitaratuak.

Eskaerak aurkezteko epea: 2009ko otsailaren 12a, eguerdiko 14:00ak bitartean.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitarsteak
plater konbinatuak

TABERNA

Dolo Errasti, Emakumea Pilotari txapelketan

Ezker hormako II. Emakumea Pilotari Txapelketa asteburu honetan hasiko da. Anoeta eta Aginagako frontoietan jokatuko da txapelketako lehen ligaxka. Azken fasea, aldiz, oso osorik Aginagan. Parte hartzaileen artean da Dolo Errasti.

Iaz antolatu zen lehen aldiz txapelketa hau. Bere ezaugarriak nagusienak bi dira: punta-puntako pilotariak ez daukate parte hartzerik (DV sarian jokatuko dute) eta bikoteak norberak nahi bezala osatzen dira.

Baldintza bakarra, pilotako federatu-lizentzia izatea.

Iaztik hona, parte hartzeak nabarmen egin du gora, 12tik 20 bikoteraino. Gainera, herrialde gehiagotako parte hartzaileak izango dira: 13 bikote gipuzkoar, 6 nafar eta arabar 1. 20 bikote hauek 5eko 4 multzotan banatu dira.

Txapelketako lehen fasean, ligaxka eran jokatuko denean, multzo bakoitzeko talde guztiek elkarren aurka jokatuko dute. Ondoren, multzo bakoitzeko 2 onenak (8 talde guztira) igaroko dira final-laurdenetara, eta, azken fase hau, kanporaketa sisteman jokatuko da. Hau da, irabazleak aurrera egingo du txapelketan eta galtzaileak etxerako bidea hartuko du.

Txapelketako ligaxkako partidak bi egoitza edo pilotalekutan jokatuko dira, Aginagan eta Tolosaldeko Anoetan. Partida guztiak larunbat arratsaldetan jokatuko dira, arratsaldetik 16:00etatik aurrera Aginagan eta 16:30etik aurrera Anoetan. Azken fasea, berriz, Aginagan jokatuko da.

Ligaxka aurreko asteburuan hastekoa zen, baina zikloia tarteko, asteburu honetan hasiko da. Azken fasea, berriz, otsailaren 28tik martxoaren 14ra.

Ezker Hormako II. Emakumea



LARUNBATEAN 16:00ETAN,
ERRASTIK AGINAGAN JOKATUKO DU.

Pilotari Txapelketari jarraipena helbide honetan egingo zaio:
www.blogak.com/emakumeapilotari

Igorre-Usurbil arteko partida, larunbatean Tolosako Beotibarren

Duela bi aste iragarri genuen bezala, asteburu honetan hasiko du Usurbilgo Pilota Elkartek Berria Txapelketa. Kadete, jubenil eta nagusi mailako bina pilotarik Igorrekoen aurka jokatuko dute larunbat honetan, 11:00etatik aurrera Tolosako Beotibarren.

Hasi da Berria Txapelketa. Gure ordezkariak, ordea, asteburu hone-

tan egingo dute debuta, Igorre taldearen aurkako norgehiagokan. Hauek izango dira jolasean arituko direnak:

Kadeteak: Barandiaran-Sanchez (Astigarraga).

Jubenilak: Xabi Sancho-Josu Ostolaza.

Nagusiak: Enrike Huizi-Aitzol Txapartegi.

Sailkatzen den taldeak Hernani izango du hurrengo aurkari.

Zorionak



4530 zenbakiarekin Lontxo Zubiriak Atxegan bi pertsonentzako afaria irabazi du eskubaloi taldeko azken zozketan. Usurbil KE taldeak eskerrak eman nahi dizkio Atxega jauregiari.

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 • ASTEASU
943 69 68 52 • 620 800 186

Agenda !

Otsailak 7 larunbata

Kantu afaria, 21:00etan Artzabal jatetxean. Kantariak: Xuberotar kantariak (Laffite anaiak, Zedrik, Philippe eta Dominika Agergarai). Prezioa: 25 euro. Txartelak salgai: Txiribogan eta Artzabalen.

Otsailak 8 igandea

Filma: "WINX, Erreinu galduaren sekretua". 17:00etan Sutegin. Sarrera: 2 euro takilan.

Otsailak 14 larunbata

"SoOoFING" antzerkia 19:30ean Sutegin. Sarrera: alde zuretik ikastolako idazkaritzan; 3,50 euro, takilan 5). Dirua DBH 4ko ikas-bidaia-rako izango da.

KzGunea Urtarrilak 29/30

Irudi digitalen tratamendua II.

Orduetgia: 18:00-20:00.

Telefono zenbakia: 943 36 14 12.

Larunbat honetan Abadiñora

doaz Txerriki Antzerki Taldekoak

Tarteka marteka, baina Txerriki Antzerki Taldea Usurbildik kanpo ere aritu ohi da. Larunbat honetan, "Etxe Berri de Luxe" antzezlan eskainiko dute Abadiñoko gaztetxean. Autobusen abiatuko dira eta eurekin joateko aukera dago. Bidaia 5 euro, eta izena emateko Txiriboga tabernara jo behar da.

Larunbat honetan, hilak 31, Abadiñon arituko dira Txerrikikoak. Autobusa goizeko 10:30ean aterako da Barrenkaleko bus geltokitik. Antzezlan arratsaldeko 18:30ean hasiko da eta gaueko 22:00etarako, Usurbilen izango dira bueltan.

Txerrikikoak gaztetxean bazkalduko dute baina eurekin doazen herri-tarrek, bere kasa egin beharko dute.



"ETXE BERRI DE LUXE"
ESKAINIKO DUTE ABADIÑON.

"Sarrailako giltza", DVDn

2005eko udaberrian, "Sarrailako giltza" antzezlanarekin gozatzeko aukera izan genuen. 50 lagunetik gora aritu ziren eta arrakasta handia izan zuen. Orain, DVDn argitaratua izan da orduko ikuskizuna. Duela aste batzuetatik hona salgai dago Lizardi eta Laurok dendetan.

Gure Pakearen Biltzar Nagusia

Gure Pakea jubilatuen elkarteak Gohiko Biltzar Nagusia egingo du ostiral honetan, hilak 30. Deialdia bakarra izango da eta 16:30ean hasiko da. Artzabalen, jubilatuen gaur egungo egoitzan egingo da biltzarra.

Bestetik, Gure Pakeako bazkide egin nahi duenarentzat, deialdi berezia egin berri da. Usurbilen erroldatua eta jubilatua edo pensionista izatea eskatzen da. Argibide gehiago jubilatuen bulegoan.

Bazkide kuota

Jada bazkide direnen kuotak ordaintzeko egunak ere finkatu dira: urtarri-



ARTZABALEN DAGO GURE
PAKEAREN EGOITZA.

laren 19tik otsailaren 13ra arte. Orduetgia, goizeko 9:30etik 12:30era, astelehenetik ostiralera Gure Pakean bertan.

Kantu Taldearen entseguak

Herriar talde batek Kantu Taldea sortu du Usurbilen. Helburua euskal kantak bultzatzeko gunea sortzea da. Irakasle lanetan Udarregi Ikastolako musika irakaslea ibiliko da. Hasi dira entseguak, hurrenak, hauexek:

Asteartero, 19:30-20:30 (otsailak 3, 10, 17 eta 24).

Non: Udarregi Ikastolan, musikako gelan. Ikastaroa, doan.

Izen-ematea: saioan bertan.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Orindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

ETXEBIZITZA

- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte orarako. 675709894
- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usubilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Usubildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usubilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usubilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usubilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usubilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usubilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usubilen alokairuan bizitzeko logela edo pisu baten bila nabil. 625706912.
- Usubilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Usubilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala

- alokatzen dut Usubilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 32 metro karratuko garajea alokatzen dut. Garaje edo almazen moduan ibiltzeko sarrera egokia. 943373481 / 943 37 34 14.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usubilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoak izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajea egondakoa. 620625823.
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajea egondakoa. 666988050.
- Galtzaragainen 14 metro karratuko garaje itxi bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaera

- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Lan-eskaintzak

- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperentzia eta informak ditut. 697737459
- Emakume bat garbitzaile bezala edo orduka lan egiteko prest dago: 608 83 50 33.
- Gizonetako batek lana bilatzen du, baserrian lan egiteko edo jende heldua zaintzeko: 608 83 50 33.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaindu haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usubilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943

- 36 44 69. Esperentziaduna.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usubilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usubilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska gazte esperentziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperentziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usubilen bizi naiz. Autoa dut. Esperentzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413..
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Debara noa bizitzera aurki eta Asteasun lan egiten dudanez, gustuko nuke Usubil-Orioko inork inguru honetan lan egiten badu kontaktuan jar-tzea agian elkarrekin lanera etortzeko eta gastuak erdibanatzeko.
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Haurren geletako hormetan mota eta tamaina guztietako marrakiz eta irudiak margotzen dira. Tamainaren arabera kostua. Azkar eta modu onean. Enkargu berezietarako (tamainu handiak edo irudi asko) prezio bereziak. 607 42 44 97
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikiritixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

Zorionak Julen eta Markel!

Bi urte egingo dituzue otsailaren 1ean eta 25ean. Zorionak eta muxu handi bana! Ondo ondo pasa!



Zorionak hirukote!
Hilabete hau nahiko berezia da, zuentzako bereziki! Hiruetatik, batek 9 urte egin ditu. Zein izan da? Muxu bana!



Zorionak Manex eta Ane!!

Manexek 18an eta Anek 27an egin dituzte urteak. Besarkada handi bat, muxu potolo bat eta zorionak etxekoan partez!



Zorionak Leire!!!
Urtarrilaren 28an gure etxeko printzesatxoak 5 urte egiten ditu. Muxu asko etxeko guztion partez!



Zorionak Oier!
Jada 8 urte dituzu... Gure etxeko gizontxoari besarkada eta muxu erraldoiak!



Zorionak Prexiosa!
Otsailaren 2an sei urte egingo dituzu, Malen. Muxutxuak...



Zorionak Joanes!
30ean bi urte... Muxu handi handi handi bat.

Zorionak Imanol!

Gure gizontxoak 8 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu handi bana, guraso, Izaro, izeba-osaba eta aitona-amonon partez!



JAIOTZAK

Unai Hernandez Perez, abenduak 1
Nora Arrate Izagirre, abenduak 4
Joritz Marichalar Arruti, abenduak 26
Ayleen-Dayami Morales Sanchez, ab. 27
Naia Rodriguez Agra, abenduak 29
Malen Tapia Aizpuru, abenduak 30
Alain Santos Martin, urtarrilak 11
Oihan Herrera Fabrega, urtarrilak 18



Iada ibiltzen hasia zera kolpe batzuen artian orain negarra, orain irria komeni zaizun neurrian Inge pottola gaur urtebetek egin dezun egunian kandelatxo bat piztuko degu tartatxo baten erdian ea uffaka itzaltzen dezun guk zoriondu bitartian. etxekoak

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



-2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuon zerbitzua...

-Doako garraioa behar dutenentzat.

-Jantoki zerbitzua.

-Eskola ordur kanpoko ekintza ugari: ludoteka, liburutegia, farunbatetako txokoak, udalekuak...



Usurbilgo Udala



AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Izena emateko epea: Otsailaren 2tik 13ra.



·GOSARIAK, PINTXOAK, BOKATAK...

·EGUNEKO MENUA 10€ (ASTE BURUETAN ERE!!!!)

ogia, edaria eta kafea barne

·PLATER BEREZIAK 19€

(haragiak, arrainak, arrozak...)

·ASTE BURUETAN ERE: KOPAK, COCKTAIL...

astelehetik larunbatera: goizeko 08:30tan irekitzen dugu!

igandetan: goizeko 09:30tan



erreserbak: 943 36 91 35 BORDABERRI 5, Usurbil